

BATTERY-DROP

Kostuen egitura

Bi kostu mota daude: kostu finkoak eta kostu aldakorak. Kostu finkoak zerbitzuekin edo konpromisoekin lotutakoak dira eta ez dira aldatzen urtaroaren arabera. Horiek beti konstante mantentzen dira eta hamabost egunean behin, hilean behin edo urtean behin ordaindu behar dira (kasu bakoitzaren arabera).

Kostu finkoen barruan, Zergak izango lirateke gehien nabarmentzen direnak. Hauek, urteko ordainketak izan ohi dira eta merkataritza-jardueraren baimenei lotuta daude. Gainera, Aseguru bat ere izan beharko genuke gure langileentzat beraz, beste kostu finko bat izango dugu. Askotan enpresatan beste kostu finko bat izan ohi dute, guk ez duguna; ekipoak alokatzea edo errentan ematearena dena. Lan-espazioa edo ondasun batzuk alokatzen badira, gastu finko programagarria da baina gure kasuan Lan-espaziorik ez dugu langileek lana etxetik egingo luketelako.

Kostu aldakorren barruan gehienbat programaziorako materiala sartuko litzateke. Aplikazio bat izaten jarraitzen du, baina ekoizpen-kantitaterako beharrezko materialaren beharra handiagoa izateko aukera dago, beraz kostuek ere gorantz egingo lukete. Beste hitz batzutan, hasiera batean aplikazioa merkaturatu aurretiko programazio hura guztia egiteko, ez dago ekipamendu handiren beharrik, eta pare bat ordenagailuekin seguruenik nahikoa izango litzateke. Aplikazioa indartzen doan ainean, ordea, ekipamendu gehiagoren beharra izatea tokatu ahalko litzaziguke (ordenagailuez gain), beraz, ekipamendua ordaindu egin beharko litzateke, eta hasierako kostuekin alderatuta, areagotu eta aldatu egingo lirateke.

Kostu guztiak aintzakotzak hartuz, 8200 euroko gastuak aterako litzaziguke; programazioaren materiala, funtsezko elkarteak, publizitate eta bestelako guztiak barne. Hori hasiera bateko gastuen zifra izango litzateke, lehen aipatu bezala, ordea, kostu aldakorrek zifra hura areagotzeko joera izan ahalko lukete. Esaterako, ekipamendua sendotu beharko bagenu, erosi beharreko tresnen kalitate, eta ondorioz prezioaren arabera, gastu nabarmen bat gehituko bailitzaioke.